


Astekaria



elgoi

# Karakateraino saltaka



San Frantzisko 26 • Tel. 74 25 35



## Aranburu

**GABONETAKO  
ESKAINTZA  
BEREZIA**

*URREZKO BI ERLOJU zozketatuko ditugu  
1.000 pta.ko gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.  
Zozketa 1996eko urtarrilaren 5ean izango da dendan.*

### elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

#### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

#### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

#### ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

#### ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

#### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

#### MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

#### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

#### ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

#### KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Mikel Artola, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Amaia Gorostiza, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Julen Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Perspektiba industrialak

**E**konomia zenbat eta irekiagoa izan, are zailagoak dira esparru geografiko jakinen azterketak egitea, esparruak txikiak direnean batez ere. Esan dudan hau Elgoibarri aplika dakioke. Azken urteotan aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, orokorki desindustrializazio inportantea dakartenak.

Ondorio honetara hel gaitezke 1988. urte bukaerako egoera eta 1994koa, sei urte beranduagoako alderatzen baditugu. Kontuan hartu behar da dena den, denbora tarte honetan enpresa askok Itziarrera alde egin zutela.

1998ko abenduaren 31n DEBEGESAk argitaratutako Deba Beheko Iharduera Industrialaren Gidaren arabera, Elgoibarren kokatutako 104 enpresetan 3.385 langile zeuden lanean. Iazko urte bukaerarako enpresa kopurua 117ra igo zen baina langileen kopurua 2.241era jaitsi. 12,5eko hazkunde gertatu da batetik, eta enplegua bestetik, %28 jaitsi da. Batazbesteko langileen plantila 32,5 lagunetik 20,9ra murriztu da.

Sektoreka aztertuz gero, josteko makinaren desgerpena da fenomenorik azpimarragarriena. 1981. urtean 342 pertsonak egiten zuen lan sektore honetan, Elgoibarko okupazio industrialaren %10a suposatzen zuelarik. Erreminta makinaren sektorean


galdutako lanpostuak are gehiago dira: 1.595 langile izatetik 1.007 izatera pasa dira, eta okupazio industrialaren 42,2a suposatzen bazuen ere, orain %41,3a baino ez da. Alde positiboan errodamientoen fabrikazioan 207 langile izatetik 244 izatera pasa direla da azpimarragarriena, mekanika orokorreko lantegietan 109tik 147 izatera eta tornilo eta muelle lantegietan 58tik 77ra. Forja eta metalen estanpazioen lantegiek bere horretan mantendu dute langile kopurua, 128 langiletan, hain zuzen.

Enplegu industrialaren galerarekin batera kezkarria da iharduera honetan ari diren enpresak gero eta txikiagoak direla. Hauen inguruko eta ez hain inguruko asko eta asko enpresa auxiliari hutsak dira, auto muntatzaileak esaterako.

Elgoibarko industriak erreminta makinaren fabrikazioan du oinarririk garrantzitsuena, eta neurri txikiago batean, autoak fabrikatzen dituzten enpresentzako horniketetan. Batean zein bestean oso zaila izango da gero eta kualifikatuagoa den langile kopurua haztea. Elgoibarren dauzkagun formazio zentru, langile zintzo eta ekimen enpresarial egokiek bakarrik lortu ahal izango dute merkatuak inposatzen dituen baldintza berrietara ahalik eta trauma txikienarekin egokitzea.

**Karmelo Urdangarin**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

**Orain arte Maala baten, zergatik erabaki du BARREnek Madala idaztea?** BARREneko hizkuntz arduradunak honako erantzun hau eman digu: “Alde batetik, ahozko ohiturak daude eta hortik sortu da Maala esatea (“hor dao”, “baakit” eta “badakau” esaten ditugun bezala); baina, bestetik, forma idatzia dago, erreferentzia iraunkor modura jotzen duena, eta horregatik Madala (“hor dago”, “badakit” eta “badaukagu” idazten ditugunean bezala). Ahozko herri formaren eta jatorrizko forma osoaren -Magdalena- bitarteko modu fonologiko arrazional bat aplikatu besterik ez da egin. Bariantarik arrazoizkoena aukeratu da, Maala, Mahala, Mala, Madala... -ren artean”.



## TXALOKAK

Ikastolako bosgarren mailako neska-mutilek Regina Arrieta irakaslea txalotu nahi dute Santa Zezilia eguneko kalejira antolatuz zuelako. Irakasle honek musikaren alde egindako lana ere eskertzekoa dela esan ziguten Ikastolakoek.

## ESKUTITZAK

### 1955eko urriaren 27a, ostirala:

**H**amabost urtetan zehar egin izan dudun bezala, aste bat gehiago Espainia aldera nindoan nire senarrearekin 40 minutuko bisita betetzera, bion artean 1.600 km. luze ezarriak dauzkagularik. Hamabost urte hauetan abentura askotxo izan ditugu baina gogorrena ostiral horretakoa izan zen.

Ertzain baten paranoia dela medio ordubetez erretenitu gintuzten Gasteizen, hemen elkartasun gehiegi genuela ikusita, bidaia jarraitzen laga zigun. Bost bakilometro egin ondoren, ertzainez inguratuta ginen. Autobuseko gidaria mehatxatzen zuten atea ireki zezan eta guk ez zabalteko eskatzen genion barruan ez zegoelako inolako erasotzailerik. Ertzainen jarrera ikusita ziur geunden bat edo bat atxilotuko zutela muntaia hura guztia justifikatu ahal izateko. Horrela hiru ordu, eta azkenik “beltzak” etorri, atea apurtuz barrura sartu, eta gidaria eta lehenengo aurkitu zuten mutil gazte bat atxilotu zituzten. Berriro ere erasotzailerik egon ez arren, gu erasotuak izan ginen. Nola azalduko nizueke pasatu genuen inpotentzia? Ezin daiteke. Non zeuden Euskal Herrian hain famatu egin diren “Atutxa bideoak”? 14 ertzain furgoneta kontatu nituen inguruan, txapel beltz eta gorriak besterik ez genituen ikusten. Auto bat bera ere ez zen pasatzen, ertzainek bidea moztu baitzuten. Bakarrik geunden errepidearen erdian, gau ilunean, ertzainez inguratuak, autobuseko atea

hautsita, gidaria eta bidaia lagun bat atxilotuak, eta noski, bisita galdua.

Atxiloteten ondoren autobuseko kristalak apurtu zizkiguten, zaurituak egon ziren eta hala ere, beste ordubetez bertan erretenituta eduki gintuzten. ASKI DA!!!

Gidaria eta atxilotutako mutila kargurik gabe askatu zituzten, baina kaltea egina zegoen.

**Arrate Juaristi**

### Ospa ezazu hirugarren urte hau gurekin!

**I**txaropena abesbatzak hirugarren urtea bete behar duen honetan, herritar guztioi gerturatu nahi dizuegu gure talde hau: irekia, ezberdina eta berritzailea. Hiru urte, lurralde eta garai anitzetako musika ezagutu eta ezagutarazten; herri eta antzoki, kale eta elizetan gure ahotsak entzunarazten.

Eta horixe da, hain zuzen ere, behar duguna: geure ahotsek abesten jarrai dezaten, isildu baino sendotuz joan daitezen. Horretarako, herritar guztioi zuzentzen gatzaizkizue, geure taldera etor zaitezten eskatuz. Ez dago ez adin ez beste inolako mugarik; musika gustuko baduzu, zuretzako tokia badaukagu lana eta lagungiroa bateratzen dituen abesbatza honetan. Musika irakurtzen jakiterik ere ez duzu behar.

Interesik badaukazue, hitzegin ezazue partaideren batekin, edo zatozte ostiraletan iluntzeko 7ak laurden gutxiagotan Kultur Etxean dauzkagun entsaiuetara. Musikazale, zure zain gaude!!

**Itxaropena abesbatza**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





AZKUE

**S**anta Zezilia eguna pasa berri da baina Udal Musika Bandak igandean ospatuko du musikariaren patriaren eguna. Horregatik aproposa iruditu zaigu Bandako Artxiboko 1972. urteko erretratu hau gaurkoan hona ekartzea. Erretratuan ikus daitekeenez, Bandakoek uniformerik ez zeukaten oraindik eta bakoitzak etxeko trajerik dotoreena jazten zuen kontzertuetarako. Jakin dugunez, bi urte beranduago, 1974an, eskuratu zituzten uniformeak.

Atzean, ezkerretik hasita: **Jose Antonio Osoro, Jose Del Valle, Eladio Gorostiza, Aurelio Diego,**

**Moisés Guilló (†), Juan Mota, Moisés Agirre, Felipe Palacios (†), Felipe Igartua, Jose Izagirre, Jose Inazio Sarasua eta Pedro Regil.**

Erdian: **Pedro Sanchez, Julio Bueno, Francisco Cuesta, Txomin Mujika, Jose Angel Zubiaurre (†), Victor Zubiaurre, Luis Mari Zubiaurre, Antton Azpiazu, Jose Manuel Martinez, Jose Inazio Izagirre eta Fernando Azpiazu.**

Aurrean: **Iñaki Goñi, Angel Riaño (†), Juan Eguren, Pedro Soriano, Jose Novoa, Jose Zubiaurre zuzendaria, Felix Lodoso zuzendariordea, Julian Iriondo eta Rikardo Gorriti.**



**ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea**

**HITZARMENERAKO EUSKARA TEKNIKARIA**

lanposturako izena eman dutenentzako **OHARRA:**

- Euskarako azterketa ABENDUAREN 1ean izango da. Ordua eta tokia telefonoz jakinaraziko zaizue.
- Azterketaren ezaugarriak:
  - Itzulpenak (2). Hiztegia erabiltzeko aukerarekin.
  - Gutunak (2).
  - Idazlana (2/3 orrialde)

**Izena emateko azken eguna: AZAROAREN 30a.**



## Eskulana utzi eta gorbata jantzi



**Ezkondu, Jangoikoak bidalitako seme-alaba guztiak izan eta etxeko lanak egin. Emakumezkoen bizitzaren oinarria hori zen garai batean. Gero, eskulana behar zela eta hainbat lantegitan sartzen hasi ziren, hori bai, etxeko ardura utzi gabe. Ikasketak beranduago etorri ziren. Gaur egun, zuzendaritza postuetan ere ikus daiteke bat edo beste. Egoera ez da normalizatu baina aukerak ugaritu egin dira. Gure artera belaunaldi ezberdinetako hiru emakume ekarri ditugu, beraien esperientziak erakutsi digu errealitatea edozein izanik ere, norberaren esku dagoela askotan bizimodua.**

**A**inhoa Iruretak 26 urte ditu. Umetan farmazeutika izan nahi zuen, “nahastiak eitxen ibiltzeko”. UBIIn zegoela, gustua ezezik lan munduan irteerak izango zituen ikasketaren bat aukeratu zuen, injinerutza tekniko elektronikoa. Arrasaten ikasi zuen, “nere gelan, 100 pertsona geunden eta horietatik sei bakarrik ginan neska”.

Karrera amaitu bezain pronto makina bat kurrikulum bidali zituen eta halako batean, Gasteizetik deitu zioten “FP.ko eskola bat zan eta nere departamentuan ni izan nitzan sartu zan lehenengo neskia. Batek esan zian nik aukeratu naban karrera ez zala bat ere femeninua”. Halere, Ainhoak zorte handia izan duela onartzen du. Gaur egun Zubitronic enpresan

dago lanean, injineru elektronikoa da. Esan digunez, edozein enpresatara deitzen duenean, automatikoki dakite Zubitronikekoa dela, “inguruan dagoen injineru emakumezko bakarra naiz”. Lan egiten duen enpresan ez du inoiz arazorik izan emakumea izateagatik baina kanpora atera behar izaten denean, “igarri izan dot erreze-lo puntu bat, ‘emakume honek zer egingo ote digu’ pentsatzen daban

### AINHOA

**“Astian behin futbol partido bat ikustia gustatzen jata. Umetan Arkonada zan nere idolua”**

asko dao”. Emakumea izateagatik bere lanean gizonetzko batek baino gehiago demostratu behar izan du bere balioa, “makinak konpontzera ere juten naiz batzuetan. Han egoten dia gizon guztiak neri begira, taladrua zela hartzen doten, destornilladoria nola erabiltzen doten...”.

Ordu asko ematen ditu lanean, “gabeko 11etan ere ailegatu izan naiz etxera”. Lana garrantzitsua da Ainhoarentzat halere, orain daraman erritmoa betirako izango denik ez du uste, “bixar edo etzi umiak eukitzia pentsatzen dotenian gauzak aldatu ein biharko dia seguruen”. Ambizioaz galdetu diogu, “nere anbiziua nere lanian ahalik eta onena izatia da”.

### Central Hispanoko zuzendaria

Elgoibartar askok bezala, Maribi Agirregomezkortak ere señorita Anitarekin ikasi zuen. Gero, Perito Mercantil egiten hasi zen baina, “lanian hasi nitzan hamasei urtekin eta liburuak gehixegi gustatzen ez jatazenez...”. Central Hispanon hasi zen lanean, “papeleo asuntuakin, makinaz idazten...”. Orain, bankuko zuzendaria da. Lanpostua eskaini ziotenean “dudak euki nitxun, seguruen gizo-

nezkoa izango banintz eukiko ez nitxunanak". Ezkonduta dago eta bi seme ditu, "gurian ohitxuria zan amak ei-txia gehixena, ama etxian egotia ordu batetik aurrera". Zuzendari izateak, ordea, aldaketa batzuk ekarri zituen beraien bizitzara, "Madrilera jun bihar izan nitzan ikastaro batzuk ei-txera eta lehen arratsal-

## MARIBI

**"16 urtekin hasi nitzan lanian eta nere burua ez dot ikusten ezer ein gabe, etxian sartuta"**

deko 3etan amaitzen naban lana eta oin askotan 10ak jotzen die etxera bueltatzen naizenerako". Gaur egun emakume bat dauka etxeko lanak egiteko.

Maribi bost pertsonaren ardura duna da, "ez dot sekula arazorik euki, ekipo ona dao nerekin lanian eta hori oso inportantia da". Zuzendarien bilerara izaten duenean oso emakume gutxi elkartzen dira. "Euskadin 10 inguru gera eta egixa esan sekula ez dou problemarik euki, sekula ez dou ezer igarri ez onerako ez eta txarrerako ere". Gauzak aldatzen hasi direla uste du Maribik, "nere epokan emakumiok ezin genduan anbiziorik euki. Zuzendari izatia ez zakun burutik pasatu ere eitxen. Oin, bateron bat bihar bada, gero eta gehixo ikasketak begiratzen dia, preparazua, eta ez emakumia ala gizona dan". Pozik bizi dela aitortu digu, "lana oso inportantia da nerezat, asko gustatzen jata, batez ere jendiakin dakaten hartu-eman, asko ikasten dozu. Familixia eta gero lana dauala esango nuke". Hori bai, libre daukan denbora apurra ezer egin gabe ematen du, "asko disfrutatzen dot, pasiara bat eman eta trankil-trankil ezer ein gabe egoten".

### Hizkuntzen bidetik

61 urte dituen emakume honen istorioa nahiko ezohikoa da. Carmen Ferrer donostiarra da jaiotzez. Magisteritza egiteari ekin zion baina, "ez nuen pazientziarik umekin" eta hura



Maribi Agirregomezkorta  
CENTRAL HISPANOko zuzendaria



Ainhoa Irureta  
Injineru Tekniko Elektronikoa



Carmen Ferrer  
Inportazio-espertazio zuzendaria  
eta itzultzailea

uztea erabaki zuen. Ikasteko grinak bultzaturik Ingalaterrara alde egin zuen. Erizain eta ume zaintzaile goizez, arratsaldez akademia batera joaten zen ingelesa ikastera. Bi urte eman zituen Londresen, itzuli eta Parisera joan zen. Handik itzultzean, 22 urte inguru zituen eta bi hizkuntza zekizkien gaztelaniaz gain. Batean eta bestean lan egin eta gero Elgoibartik deitu zuten eta hona etorri zen itzultzaile, "Elgoibarren garai hartan ez zegoen beste emakumerik nik beste hizkuntza zekizkienik". Enpresa hartatik beste batera, "espertazio-inportazio departamentuko buru". Carmen emakumezko pribilegiatu bat izan da, "lehen emakumeek lantegian egiten zuten lan, baina ikasketak zituztenak gizonezkoak ziren".

## CARMEN

**"Umetan izara azpian argitxo bat sartu eta ezkutuan irakurtzen nuen"**

Umetan oso argi zeukan berak independente izan nahi zuela, "gaur egun, nere alabari sarri errepikatzen diot ezkondu aurretik bere bizitzan izan nahi duena lor dezala". Carmen ezkondu egin zen eta bi seme-alaba izan zituen, "etxeko lanak egiteko emakume bat nuen eta haurrak zaintzeko beste bat. Nire lan eritimoarekin beharrezkoa zitzaidan, garai hartan gizonezkoek ez zuten bat ere laguntzen". Bere gurasoengandik jaso zuen garrantzitsuena, "diziplina izan zen, ordena eta duzunarekin konforme bizitzeko ahalmena" eta berak seme-alabei sarri errepikatzen diena, "lanarekin disfrutatze" da. Gaur egungo gazteak oso akomodatuak ikusten ditu, "anbiziorik gabe. Behar bada egoera zailagoa bizi dute baina, era berean, orain dauden erraztasunak ez dituztela aprobetxatzen uste dut". 61 urte ditu eta orain urtebete utzi zuen lana, "trauma handi bat izan da, ez dakit etxean ezer egin gabe egoten, orain ere euskara ikasten ari naiz, Yoga egiten dut... Okupatuta egon behar naiz".



## Epaimahaiari buruz

“¿Jurais o prometeis desempeñar bien y fielmente vuestra función de jurado, examinar con rectitud la acusación formulada contra... (akusatuaren izena) apreciando sin odio ni afecto las pruebas que se os dieren y resolver con imparcialidad si es o no culpable de los delitos imputados así como guardar el secreto de las deliberaciones?”

Hau da Magistratuak epaimahaikideei zin eginaraziko diena eta bertan agertzen zaizkigu epaimahaiaren eginbeharrak zeintzuk diren. Erresponsabilitate handiegia ote gureztat?

Egia esan, epaimahari buruz daukagun ideiarik urrenena beharbada filmeetan ikusi duguna izanen da, beraz, ezin daiteke esan hau ideia handiegirik edukitzea denik...

Elgoibarren, jadanik, 1996. urtean epaimahaia osa dezaketen herritarren zerrenda atera da. Beraz, legea jarri da martxan. Hurrengo pausoa epaiketa konkretu batek hasiera ematen duenean izango da. Epaiketa baino 30 egun lehenago Auzitegiak 36 epaimahaikide deituko ditu eta horietatik, zozketa batzuen ondoren, epaimahaia osatuko duten 9 epaimahaikide eta 2

ordezko hautatuko dira. Epaikideen funtzioa proba guztiak begiratu eta aztertzea da. Beraz, galderak egiteko aukera edukiko dute bai lekuko, perito eta akusatuari ere. Begizko ikustapenetara ere joango dira eta konbikzio piezak begiratu ere. Frogen arabera zeintzuk egitate (hechos) dauden probatuta eta zeintzuk ez erabaki beharko dute. Gero, deliberazio sekretu baten ondoren erabaki bat hartu beharko dute. Erabakia hartu arteko guztian epaimahaiak inkomunikaturik egon beharko du. Puntu honetan sortzen zaidan zalantza zera da: deliberazio hau luze joaten denean, nola egingo dute inkomunikazio hori mantentzeko hemengo epaitegietan dauden baliabide eskasekin?

Deliberazioaren ondoren botua ematea derrigorrezkoa da eta ez da abstentziorik onartuko, isunaren zigorpean. Kulpabilitatea erabakitzeko 7 botu beharko dira eta inculpabilitatea erabakitzeko 5 botu nahikoa izango dira. Akordiorik lortuko ez balitz, Magistratuak akta bueltatuko luke eta hori hiru aldiz gertatuz gero, epaimahai berri bat hautatu beharko litzateke.

Prozesu honetan guztian ikus-

ten dugunez, isun desberdinak pentsatuta daude -25.000 pta.tik 250.000 pta.ra artekoak- epaimahaikideek euren betebeharrak betetzen ez dituzten kasurako. Argi dago epaile izatea eskubidea izateaz gain, obligazioa dela. Aurrez pentsatuta dauden aitzakiaren bat ez edukiz gero aukera gutxi ematen zaizkio herritarrari betebeharrak horri bizkarra emateko.

Estatu espainolean lehenago ere izan da epaimahairik, azken Errepublika garaian gugandik urrenen. Baina garaia, jendea eta gizartea aldatuz doazenez, oraingo honetan zer gerta daitekeen probatu eta gero bakarrik jakingo dugu...



ANA ETXEBERRIA

**PUB**  
**ARRATS**

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

**ecenarro**

- Bet twnq  
gt t qcm  
- Uo ggp  
gt t qcm

San Frantzisko 10,  
Tel.: 74 26 19

**KAROBI**  
**PUB**

**ELGOIBAR**

Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

## Nahiko zenuke epaimahai batean egotea?



### ELENA TERCERO

19 urte, ikaslea

Iritzia ematera ausartuko nintzateke baina pertsona bat epaitzerakoan, erruduna ala errugabea den esatea epaileari dagokio, batez ere delitu grabeean.



### CONCHI ROSA

26 urte, langabetua

Ez, erresponsabilitate handiegia da norbait zigortzea. Gainera oso erraz epaitzen ditugu pertsonak, aurriritzi asko dago. Epaitzeko epaileak daude.



### PAQUITA PEREZ

52 urte, etxekoandrea

Ez lidake graziaz egingo, gauzarik zailenetarikoak iruditzen zait, batez ere zure begiez ikusi ez duzun gauza bat epaitu behar duzulako.



### MIGUEL JOSE LOIOLA

35 urte, udaltzaina

Ez, ezagutzarik gabe norbait epaitzea... Ez dut nire burua lan horretan ikusten, nahiz eta pertsona askoren artean erabakia hartzea errazagoa izaten den.



### SANTIAGO HERNANDEZ

41 urte, organizazio teknikaria

Ez, erresponsabilitate handia da, beti geratzen zaizulako ondo ala gaizki egin ote duzun kezka. Epaileak horretarako presatuagoak daude.



### FRANCISCO ALVAREZ

65 urte, jubilatua

Ez nuke nahiko, ez da bat ere erraza pertsona bat erruduna ala errugabea den jakitea. Hori bai, lapur guzti horiek gartzelara bidaliko nituzke!



**ISTRIPU ASEGURU  
MODULARRA**

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99



**HERRI-  
GAIN**

**ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR





## ■ Ontzien birziklaia

Deba Beheko Mankomunitateak urtebete barru tetrabrikezko, plastikozko, altzairuzko eta alumiozko ontziak biltzeko eduki-ontzi edo kontenedoreak jarri nahi ditu. Zaborrak, paperak eta beira jasotzeko dauden hiru kontenedore ezberdinez gain, laugarren bat jartzea suposatuko luke honek. Datorren ekainetik aurrera indarrean sartuko da ontziak biltzera behartzen duen europar direktiba. J. A. Aranbarri Mankomunitateko presidentearen esanetan Deba Beheko Mankomunitatea birziklaiaren arloan aintzindari izan da eta izaten jarraitu nahi du. “Hortaz, direktibak formalki ontziak biltzera behartu aurretik, gure asmoa ontziak biltzeko prestatuak egotea da, zaborren konposizioa ezagutuz, erreziklatu behar den ontzi kopurua zein izan daitekeen kalkulatu, eta azkenik, kostua zenbatekoa ezagutuz”. Jasotzen diren ontziak birziklatu egingo liriateke, “birziklaiatik etekinak lortzea nahiko genuke, zerbitzu berri honegatik biztanleei gastu berririk sortarazi gabe”.

## ■ Parroki abesbatza

Santa Zeziliaren omenezko ekitaldien artean, Eliz Abesbatzak abestu egingo du larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 7etako mezan. Kanta herrikoï eta ezagunak, “Canticorum Jubilo”, “Ave María”, “Verbum Caro” eta beste batzuk eskainiko dituzte.

## ■ 60 pertsona ari dira trikitixa ikastaroan

Olaizaga kiroldegiak antolatutako trikitixa ikastaroan bi talde osatu dira, astelehen eta ostegunetako eta larunbat goizetako, guztira 60 pertsona. Azaroaren erdi aldera hasi zen ikastaroa Gabonak arte luzatuko da. Iaz bezala, ikastaroa amaitzen dutenek Gabon Zahar egunean Plaza Handian dantza egitea da asmoa. Ikastaroa ematen ari direnak Haritz Dantzari Taldeko kideak dira.



**Kokoe Elkarteak antolatuta,** Komiki Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia burutu zen iragan ostiralean. Lehen sailkatua eta hirugarrena kanpotarrak zirenez ez ziren ekitaldian izan. Han izan ziren, ordea, bigarren saria irabazi zuena, Roberto Martinez Vinuesa bilbotarra eta Amaia Ballesteros López, 17 urtetik beherakoen artean aipamen berezia jaso zuena (argazkian erdian). Sariak banatzen Blanka Salegi kultur teknikaria eta Gotzon Garate zinegotzia izan ziren Udalaren aldetik, eta Alberto García Kokoeko ordezkari modura. Lehiaketan parte hartu zuten hainbat lan Kultur Etxean ikusgai daude erakusketan.



**Elgoibartarrak Marbellan** izenburua jar diezaiokegu goiko erretratuari. Sabin Arrieta eta Mertxe Epelde elgoibartar senar-emaztea, hiru semeekin, duela zazpi urte joan zen Marbellara. Han Itxasgain jatetxea ireki zuten eta itxuraz, jatetxeak demaseko estimazioa dauka, bai bertakoen bai eta kanpoen artean ere. Elgoibartik Marbella ingurura hurbiltzen diren gehientsuenak, Itxasgainera bueltatzea egiten omen dute. Argazkian agertzen diren Elgoibarko bederatzi emakumeek ere, Inersoren bidaia aprobetxatu zuten 15 egun eguzkitan pasa eta Marbellako elgoibartarrei bisitatzea egiteko. BARRENen eta herritar guztien izenean, gorantziak herritik kanpo bizi zireten elgoibartar guztioi.

## Eusko Trenbideak-eko sindikatuak enpresaren erabakien aurka azaldu dira

Eusko Trenbideak enpresako sindikatuak komunikatu bat bidali dute Udaletxe guztietara Eusko Trenbideak-ek Bilbo eta Donostia arteko ibilbidea zuzenean egiten zuten trenak kendu dituela salatzen. Irailaren 18tik Eibar, Ermua, Deba eta Zumaian transpor-



AITOR ZABALA

doak egin behar dira Donostiatik Bilbora zuzenean doan trenik ez dagoelako. Neurri honekin ibilbide motzeko joan-etorriak bultzatu nahi izan du enpresak. Elgoibarko PPko Juan Carlos Abian zinegotziak Eusko Trenbideak-eko sindikatuko ordezkariekin emandako prentsurrekoan, aipatutako komunikatuaz gain, sindikatuak burutu dituzten beste ekintza batzuen berri ere eman zuten. Lan Inspektzioran denuntzia jarri dute sindikatuak Elgoibarko Toletxegaineko geltokiko irregularitasunak direla-eta. Geltokiak 40 metroko andena baino ez dauka, eta trenak hiru bagoi baino gehiago dituenean, hainbat bagoi andenetik

kanpo geratzen dira. Bagoietako ate guztiak batera irekitzen direnez, erortzeko arriskua begibistakoa da. Enpresaren irtenbidea trenak bi geldialdi egitea dela adierazi zuten sindikatuak. Sindikatuen ustez, andena luzatu egin beharko litzateke. Bestalde, Ermuko geltokian, Eibartik doazen tranbiak eta Bilbo aldetik datozen trenak, trenbide bakarra dute geratzeko, hau da, trenak aurrez aurre geratzen dira. Sindikatuen ustetan, trenak parez pare jotzeko arrisku handia dute, edozein larrialdirean aurrean batez ere. Beraz, geltokira heltzean, norabide bakoitzeko trenak trenbide bana izan dezan eskatzen dute.



**Paco Egea elgoibartarrak**, Eusko Jaurlaritzako Sailburordeak, lanaren berrantolaketari buruz hitz egiten jardun zuen asteazkenean Gestio Eskolak antolatutako Forum-ean. Elgoibartarrekin batera *Prospektiker* europar institutuko zuzendaria den Juanjo Gabiñak lanaren berrantolaketari buruzko hainbat ideia azaldu zituen entzulegoaren aurrean.

## ■ Gazte Asanblada, Udalak erantzun zain

“Elgoibarko Gaztetxearen aldeko ekimena” izeneko proiektuari erantzuna emateko zain dago Gazte Asanblada. Maiatzaren 5ean aurkeztu zuten egitasmoa Udaleko Ongizate Sailean. Herriko gazteriaren etorkizunari eta drogomenpekotasunen prebentzioari begira proiektua burutzea posible den ala ez esan dezan eskatzen diote Udalarari. “Udaleko ordezkariarekin hizketarako borondatea azaldu dugun baka-rrak gara, Udalak eman behar du orain hurrengo pausoa”. Abenduaren hasierarako erantzunik jasotzen ez badute, “arazoa konpondu nahi ez dutela eta beraz, mobilizazioak burutzea pentsatu beharko dugu”.

## ■ Enplegurako orientazio eta motibazio ikastaroa

Deba bailarako zortzi udalerrik, Elgoibarkoak barne, formaziorik gabeko emakumeentzat enplegurako orientazio eta motibazio ikastaroa antolatu dute. Eusko Jaurlaritzak, Europar Fondo Sozialak eta DEBEGESAK finantziatutako hiru urteko iraupena izango duen programaren barruan burutuko da ikastaroa. 30 milioiko aurrekontua dauka programak. Bi talde osatuko dira, 25 urtetik beherako emakume taldea eta 25 urtetik gorakoena. Klaseak Mendaron eta Ermuan izango dira. 60 orduko iraupena izango duen ikastaroan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da formaziorik gabekoa, langabetua eta motibazio handiko emakumea izatea. Lan mundurako eta formaziorako motibazioa eta balibideak eskaintzea da ikastaroaren funtsa. Lanbide Heziketako ikasketak burutu dituzten emakumeentzat, administrazio eta informatika adarretatik, 450 orduko AS400 deritzon ikastaroa emango da. Ziurrenez IBM etxeko teknikoek emango dute ikastaroa eta informatika eta arrazonomendu logikolari buruzko azterketa egingo da aurkezten direnen artean. Ikastaro biak abenduan hasiko dira. Izena emateko Udal Ongizate Sailera (74 10 08) zuzendu hilaren 30a baino lehen.

## Izaskun Estibariz:

# "New-Yorken Behobian bezala sentitu nintzen"

Azaroaren 12an Behobia-Donostia lasterketa ospatzen zen. Handik milaka kilometrotara, New York-en marathoia zegoen. Bertan elgoibartar bat izan zen, Izaskun Estibariz. Aurretik ez zuen sekula marathoirik korritu baina aukera parean tokatu eta animatu egin

zen. Isa Azkuek lagundu zion, bide batez hiriburu kosmopolita hura ezagutzeko asmoz. Astebete pasa zuten bertan eta biek esan digutenez, "benetan ikusgarria izan da, bai lasterketa bai eta hiria bera ere. Hura beste mundu bat da".

### - Zergatik New-York?

- Argi neukan noizbait marathoi bat korrituko nuela. Batzuekin eta besteekin berbetan, poliki-poliki New York-ekoa atera zen eta egun batetik bestera joatea erabaki nuen.

### - Erabaki eta entrenatzen hasi al zinen?

- Urte osoan ibiltzen naiz korrika egiten. Behobia-Donostia krosa hiru aldiz eta Santurtze-Bilbo beste hiru aldiz egin izan ditut, beraz, ez zen hutsetik hastea bezala. Irailean ekarri zidaten dortsala eta orduan hasi nintzen ahal beste preparatzen.

### - Azaroaren 9an iritsi zineten New York-era.

- Bai, eta marathoia 12an zen, igandean. Larunbatean ongietorria egiten zaie parte hartzen duten herrialde guztiei, eta sei kilometroko ibiladi bat egiten da korrika. Egun horretan korrikalariak ezezik, nahi duten guztiek ere har dezakete parte.

### - Nola sentitu zinen 30.000 pertsonaren artean?

- Oso emozionantea da. Batzuk marka ona egitera doaz eta horiena beste plan bat da. Gainontzeko guztiak oso lasai joaten dira. Jendea disfrazatuta, marathoian parte hartzen



### "Korrika zaudela, ibilbidean zuzenean jotzen ari diren musika taldeak ikusten dituzu"

zuten korrikalariak derrentean geratu eta argazkiak ateratzen zituzten...

### - 42, 192 km. korrika.

- Hiru km. egin nituean bare puntu bat sentitu nuen baina berehala errekupeatu nintzen. Lau ordu pasa egin nituen bukatzeko baina ez zitzaidan bat ere luzea egin. Ibilbide guztian zehar, auzo ezberdinak pasatzen dituzu eta guztietan musika taldeak daude zuzenean jotzen, jazz-a, blues-a, rock-a,... Azkenengo hiru kilometroak lehertuta egin nituen baina bukatu beharra nuen.

Amaitzea satisfazio bat da eta merezi izan duela konturatzen zara.

### - Giroa ere primerakoa.

- Oso beroa. Behobia-Donostiakoaren antzekoa da, baina hirukoiztua. Ezagutzen ez zaituzten arren, denak animatzen zaituzte. Gogoan daukat, balkoi batean zegoen emakume bat, altaboz haundi batzuek zituen kanpora aterata, musika a tope eta korrikalari guztiak animatzen. Oso berezia da marathoia bertako biztanleentzat.

### - 0 azpitik 7 gradu izan al zenituzten?

- Hain gutxi ez. Lau gradu inguru egongo ziren. Ez nuen hotz handirik pasatu baina jendeak hala komentatzen zuen.

### - Korrika zaudela, zertan duzu burua?

- Burua oso argi eduki behar duzu, fisikoki ezezik mentalki ere preparazio ona behar da. Korrika zaudela konsziente zara aurretik duzun guztiaz baina, era berean, zure inguruan gertatzen ari den guztia ikusten duzu.

### - Lasterketa amaitu eta gero?

- Dutxa beroa hartu eta kalera.

### - Turista bezala.

- Hori da, behin bertaraino joanez gero, hura ikusteko aprobetxatu genuen. New-York ikusgarria da, batez ere gaez. Eta "rascacielos"ak aluzinanteak dira, behetik gora begiratzeak inpresioa egiten du eta harrigarria da eraikuntzen barruan dagoen montajea, ez du zerikusirik ezagutzen dugunarekin. Beste mundu bat da!

### - Hurrengo marathoia?

- Ikusiko dut. Oraingo deskantsatu beharra daukat. Dena dela, berriz ere egiteko gogoarekin itzuli naiz, ez New York-en, baina bai beste marathoi bat.

# kiliBARREN

Mendaroko gehigarria

Urriak 27

23. zkia.

## Gizartea kontzientziatuta al dago HIESarekin?

Abenduaren 1ean HIESaren eguna ospatuko da munduan eta aurten baita Mendaron ere. Guztiok HIESa zer den badakigun arren,

oraindik bildur handia dago jendearen artean. Mendaroko kaleetara jo dugu jendeari gai honi buruz hainbat geldera egiteko asmoz.

### Jose Antonio Iriondo

57 urte, jubilatua



Ez dago kontzientziarik nahiz eta informazio asko egon. Niri gogorra egingo litzaidake horrelako pertsona batekin bizitzia. HIESaren arazoa konpontzea oso zaila iruditzen zait.

### Javi Rubio

30 urte, montadorea



Informazioa egon badago, baina jendeak paso egiten du. Arazoak kontuan hartu behar dira eta horrezaz gain jendeari jakinarazi egin behar zaio.

### Luis Vilches

50 urte, txoferra

Jendea badago kontzientziatua baina nik, adibidez, ez dut horrelako arazorik gertutik ikusi. Ondo iruditzen zait abenduaren 1a HIESa dutenei dedikatzea.



### Fátima Torrado

27 urte, etxekoandrea



Jendea ez dago kontzientziatua, ez gara ohartzen arazo hori hor dagoela. Guk bakarrik nahi dugunean ematen diogu arazoari garrantzia baina gertutik bizitzea tokatzen zaigunean konturatzen gara benetako arazoa zen den.

### Idurre Arakistain

17 urte, ikaslea

Egun bat bakarrik ez litzake egon biharko HIESa duten pertsonen gogoratzeke, urteko egun guztiak izan biharko lirateke. Informazio asko egon arren, gaixotasuna daukan jende asko marginatua dago oraindik eta gizartea ez dago kontzientziatua.



### Mireia Elorza

18 urte, ikaslea

Herri mailan ez dago informazio asko eta jendea ez dago kontzientziatua arazoarekin. Gainera, HIESa dutenak marginatuak daude. Ez dakit horrelako arazoarekin bizitzeko gai izango nintzatekeen, agian ez dudalako gertutik bizi izango da.





## Gabonetako Euskarazko Ipuin Lehiaketa

Mendaroko Udalak I. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Lanek euskaraz behar dute izan eta bi maila izango dira. Lehenengo mailan Mendaroko Ikastolako OHOk 6., 7. eta 8. mailako ikasleek har dezakete parte eta bigarrenean Deba Beheko ikastetxe ertainetakoek. Gazteenen lanek 2 eta 4 orri bitarteko luzera izan behar dute eta ertainetako ikasleenak, berriz, gutxienez 3 orri eta gehienez 6. Lehen kategorian irabazleak 10.000 pta.ko materiala eta oroigarria jasoko du eta ertainetakoak 35.000 pta. gehi oroigarria. Beste sari batzuk ere izango dira. Bigarren kategorian mendarotar onenari 10.000 pta. emango zaizkio. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22an amaituko da eta sari banaketa 1996ko urtarrilaren 7an egingo da.



## Kontzezio eguna

Abenduaren 8an, ostirala, Kontzezio eguna ospatuko da ohi den bezala. Aurten, honako ekintzak antolatu dira: goizeko 11,30etan kalejira izango da Elgoibarko txistulariekin. Eguerdiko 12etan meza nagusia egongo da Garagartzako elizan. 12,30ak aldera Elgoibarko Haritz Dantzari Taldeak Soka-Dantza eskainiko du eta ondoren pastak eta ardo goxoa banatuko dira hurreratzen direnen artean.

## Jubilatuentzako Txokolatada

Iaz egin zen txokolatadak izan zuen arrakasta ikusita, Lagun Betikoak jubilatuen elkarteak aurten berriz ere antolatzea erabaki du. Abenduaren 12an izango da txokolatada, arratsaldeko 5etan Ikastolako gimnasioan. Txokolateaz gain, Gelatxorekin dantzaldia izango da eta 250 pertsona inguru elkartzea espero da. Bestalde, Lagun Betikoak-ek gabonetako loteria atera du bazkideentzat.

## Emakumeen prestakuntza eta enplegurako ekimena

Langabezian edo behin-behineko lanetan aritzen diren Deba Beheko emakumei zuzendutako ikastaroak antolatu dira. Helburua, enplegua topatzeko formazioa ematea da. Bi ikastaro antolatu dira, batetik, Enplegurako Norabide eta Motibazio ikastaroa. Honako hau abenduaren 11tik 1996ko urtarrilaren 24ra arte izango da Mendaron eta Ermuan. Bestetik, Eibarren AS/400 informatika ikastaroa emago da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko Udaltxeko Gizarte Ongizate Saileran jo behar da azaroaren 30a baino lehen.



## I. Kontzezio Erakusketa-Salmenta azoka

Mendaroko Udalak Debemen-en laguntzarekin antolatuta, abenduaren 9an, larunbata, I. Kontzezio Erakusketa-Salmenta Azoka ospatuko da. Azoka, goizeko 9etan hasi eta eguerdiko 2ak arte izango da, Mendaroko frontoiaren inguruan. Bertan aurkeztuko diren produktuek erakustailu-saltzaile bakoitzak landutakoak izango dira. Besteak beste, nekazaritza ekologikoa, barazkiak, fruituak, sagardoa, ogia, gazta, ezti, Mendaroko txokolatea, artisautza, ardiak, hegaztiak eta abar izango dira ikusgai eta erosgai.



# PROTAGONISTAK



**H**ilabete honetako argazkia **Kontxi Mugerzak** lagatakoa da. Berak esan digunez argazkia 1947. urtean aterata dago eta bertan agertzen direnak mojekin ikasi zuten batzuk dira. Hona hemen mendarotar hauen izen-abizenak:

Goiko zazpiak, ezkerretik hasita: **M. Isabel Lazaro-baster, Ana M. Zabaleta, M. Asun Zabaleta, Mertxe Mugerza, Margarita Lazkano, M. Dolores Zezeaga**

eta **M. Pilar Larrañaga**.

Erdiko zortziak, ezkerretik eskuinera: **Agustin Berasaluze, Javier Urbiet, Jose M. Arrizabalaga, Kontxi Mugerza (tente dagoen neskatila), Pedro Jose Sarobe, Martin Urain, Antonio Kapain eta Ibon Muguruza**.

Lurrean eserita dauden hiru mutikoak, ezkerretik hasita: **Jose Angel Andonegi, Pedro Azpiazu eta Juan Agustin Arreitunandia**.

3

## Modesto Oliden

Egunkari banatzailea



- Jende askok irakurtzen al du egunkaria Mendaron? ■ 150 inguru banatzen ditut egunero eta asteburuetan 200 bat.
- Zein egunkari saltzen da gehien? ■ El Diario Vasco.
- Eta gutxien? ■ Deia.
- Zuk irakurtzen al duzu egunkaririk? ■ Bistazo bat ematen diot egunero.
- Desio bat? ■ Denok zoriontsu izatea.
- Nora joango zinateke oporretara? ■ Hawaira.
- Zein notizia nahi zenuke irakurtzea? ■ Indurainek 6. Tourra irabazi duela.
- Egunkariak banatzea atsegina al da? ■ Piskat, ez gehiegi. Eguraldi txarrakin ez da bat ere atsegina.
- Gustuko janariren bat? ■ Makarroiak eta txuleta patatekin.
- Egunkari bateko zuzendaria bazina zein izen ipiniko zenioke egunkariari? ■ Mendarotarrak.
- Gezur asko esaten al da egunkarietan? ■ Mordoxka bat.



## Kontxi Prieto

### Aterpeko sukaldaria



- **Zenbat ordu egunero lanean?**  
▶ Egunak daude, baina normalean bederatziko ordu inguru.
- **Zer ordutan jaikitzen zara?**  
▶ Zazpirak eta laurdenetan, nire semea eskolara eramateko.
- **Zer lortzearen emango zenuke duzun guztia?** ▶ Familiarengatik.
- **Oporretan non izan zara?**  
▶ Normalean Soriana joaten naiz.
- **Gizakiaren inbentorik onena?** ▶ Elektragailuak.
- **Esaiaguzu pelikula baten izenburua.** ▶ “En el nombre del padre”.
- **Liburu bat?** ▶ “El nombre de la rosa”.
- **Zenbaki bat?** ▶ Zazpia.
- **Txikitari zer izan nahi zenuen?** ▶ Umeen gauzak, “hada madrina”.
- **Askotan haserretzen al zara?**  
▶ Ez, hobe da ez haserretzea, bizitzak ez haserretzen erakutsi dit.
- **Gaua ala eguna?** ▶ Eguna.
- **Erreala ala Athletic-a, zein lehenago?** ▶ Erreala, dudarik gabe.
- **Txiki Eguna ala Gabon Zahar feria?**  
▶ Gazteagoa nintzenez Txiki Eguna. Orain Gabon Zahar feria.
- **Denbora libre izanez gero, zer egingo zenuke?**  
▶ Lagunekin hitzegin.
- **Olano ala Indurain?** ▶ Indurain.
- **Zer egingo zenuke Elgoibarko alkate bazina?** ▶ Auzoekin arduratu gehiago izan eta aparkamenduak jarri, arazo handia baitago aparkatzerako orduan.
- **Loterian jokatzeko al duzu?** ▶ Bai, zenbaki batera abonatu nago, eta Gabonetan ere jokatzeko ohitura dut.
- **Hotza ala beroa?** ▶ Biek txarto, baina aukeran beroa nahiago dut.
- **Janari bat?** ▶ Ia dena, berakatz zopa izan ezik beste dena. Gustukoena beharbada arroza.
- **Zein karta joko atsegin duzu?** ▶ Denak, baina gehien txintxoia.
- **Bazkaltzeko, ura ala ardoa?** ▶ Normalean ura, baina bazkari espeziala bada, ardo berezi bat ere ez dago gaizki.
- **Bukatzeko, nahi duzun diru guztia gastatzeko izanik, zein plan egingo zenuke astebururako?** ▶ Puff! Ez dakit, beharbada Donostiara joan erosketak egitera eta gero Arzakenean ederki afaldu.

JOSEBA GOROSABEL

## SANTA ZEZILIA



Santa Zeziliari  
eginaz omena,  
gure kantuak dira  
opari onena.  
Orkestakin batera  
denbora gehiena,  
eskertu nahi genuke  
santua aurrena.

Goizean jaikiz kalerik kale  
musika talde onena  
herritarrei poztu nahian  
triste daukaten barrena.

Hau da musika zoragarria  
neri gustatzen zaidana  
elgoibartarrak postu nahian  
egin behar degu lana.

Tronpeta eta danborra  
txapak, bibolina,  
musikarako degu  
behar adina grina.  
nahiz eta ondo jotzen  
egin ahalegina  
sarri gerta litekeena  
nahi eta ezina.

SAN BARTOLOME  
IKASTOLA



## Udal Liburutegia informatizatzen ari dira

Udal liburutegia informatizatzen ari dira. 15.000 liburu inguru daude eta horiei buruzko datu guztiak ordenagailu batean aritu dira sartzen. Bukatzen dutenean, jendeak ordenagailu batean aurkitu ahal izango ditu berak bilatzen duen liburuari buruzko datuak bai eta non aurkitzen den ere.

**O**rain urte batzuk Eusko Jaurlaritzak liburutegi guztiak informatizatzekeo programari ekin zion. Estatuan Kultura ministeritzako liburutegietan erabiltzen den *Absis* izeneko programa informatikoaren bidez egiten ari dira informatizazioa. Euskal Herrian, biztanleen arabera, hiri handietatik herri txikietara hasi dira aipatu programa martxan jartzen. Duela hilabete batzuk, Elgoibarko liburutegiko bi teknikariek hainbat ikastaro burutu zituzten programa informatikoa ezagutzeko eta bere funtzionamenduaren berri izateko.

### Zer da informatizazioa


Oraindik ez daukate jakiterik noiz arte luzatuko den informatizazio prozesua. Mementuz literaturarekin eta haur liburekin hasi dira, mugimendu gehien duten liburuak baitira. Hasiera ona izan bada ere, aitortu digutenez, “beste herri batzuetako esperientziaren arabera, liburu batzuek arazoak ematen dituzte, ez da erraza izaten horiei buruzko datuak informatizatzea. Bataz beste, liburu batzuekin 20 minutuko denbora behar izaten da”.

Era batera edo bestera, informatizatzeak hainbat aldaketa ekarriko ditu. Bazkide txartelak txikiagoak izango dira, plastifikatuak eta bakoitzak “codigo de barras” deitzen dena izango du. Liburutegian bi ordenagailu izango dira, bata teknikarientzat eta bestea jendearentzat. Ordenagailuan liburu guztiak egongo dira artxibatuak eta jendeak era oso sinple batez bertan aurkitu ahal izango du berak behar duen liburua non dagoen jakitea.

Guztira 15.000 liburu inguru daude Elgoibarko Liburutegian. Horiek informatizatzekeo denbora behar denez, lanak dirauen artean beste bi pertsona kontratatu dira jendaurrean egoteko. Joan den astean hasi ziren lanean bi neska berriak, Maite Maiora eta Iratxe Arrieta.



■ ■ Maite Maiora eta Iratxe Arrieta dira Liburutegiko langile berriak.



**Metabo erreminta  
elektrikoen eskualdeko  
banatzailea**

## HORNIDURA INDUSTRIALAK

■ MOZKETARAKO ERREMINTAK

■ BABES MATERIALA

■ ERRODAMENDUAK

■ LANPARA INDUSTRIALAK

Santa Klara kalea, 24 Tel/Faxa: 74 10 97 • ELGOIBAR •



## San Frantzisko eliza eta komentua

- Plaza Txikian kokatzen ziren. Zabaleraz, gaur egungo Aita Agirre eskolak eta Gipuzkoako Banketxearen arteko tartea hartzen zuen eta luzeraz BBKtik San Frantzisko iturriraino hedatzen zen.
- Koldo Lizarralderen liburutik ateratako datuen arabera, komentua eraikitzeko baimena Leon X.a Aita Santuak eman zuen 1506ko maiatzaren 23an, izan ere, garai hartan Olasokoa baitzen eliza bakarra eta hura harresitik kanpo eta urruti zegoen.
- 1516.eko azaroaren 3an frantziskotarrek fundazio idatzia sinatu zuten Udalbatzarekin batera.
- Elgoibarko komentua Pietate Andra Mariaren ermitan kokatu zuten eta ondoko oinarriak izan behar zituela erabaki zen: 120 oin (33,60 m) luzeran, 27 oin (7,56 m.) zabaleran eta 19 oin (5,32 m.) gutxienez altueran. Karez, harriz eta adreiluz eraikiko zen.
- San Frantzisko elizak oinplano angeluzuzena zuen eta nabe bakarra. Teilatua bi isurkitara hedatzen zen. Aurreko eta alboko fatxadak harlangaitzez eraikiak zeuden eta atzekoa, nagusia eta kontrahormak harlanduz.

- Horma eta kontrahorma sendoek eusten zuten eliza. Kontrahormak zolutik ia erlaizaraino zihoazen, alde batetik bertikaltasun sentsazioa emanez baina bestetik itsutasun eta sendotasun sentsazioa adieraziz, tenploa ikusterakoan baogunerik apenas irekitzen baitzen hormetan.
- Atzeko fatxada ertzetako kontrahormek enmarkatzen zuten. Erdian ate nagusia zegoen, dobela zabalez eginiko erdi puntuko arkuarekin. Arku errenazentista honen gainean hormazulo bat zegoen irudi batekin barruan. Teilatu txiki batek, bi zutabez eutsita, elizsarrera nagusia babesten zuen. Portadaren gaineko aldean leiho dinteldu handi bat burdinsare batez itxita zegoen.

PELLO ARRIETA



## Julian Azkue Villar Argazkilaria (1923-1972)



- 1923ko azaroaren 18an jaio zen.
- Vitoriano Azkue okin eta argazkilaria sementa. Argazkilarien bigarren belaunaldia.
- Gaztetan "Fotero"arren okindegian lan egin zuen. 1963ra arte okindegi eta argazkilaria lanetan aritu ondoren, hortik aurrera, argazkilaritzan jardun zuen burubelarri.
- Mendizaletasuna atsegin zuen. Elgoibarko "Eup" mendizale taldearekin ibiltzen zen hara eta hona, mendian ateratakoak izan zirelarik bere lehen argazkiak.
- Aita hiltzean, San Bartolome kalean zeukatzen estudioarekin jarraitu zuen. Argazkiak ateratzen zituen La Voz de España, Diario Vasco eta Correo egunkarientzat.
- Gure-Bide elkartearen fundatzaileetarikoa bat izan zen 1959. urtean.
- Gaur egun Julian Azkueren semeak, Julian Azkue Intxaustik jarraitzen du argazkilaritzaren tradizioarekin.
- 1972ko urtarrilaren 29an hil zen.

## IRAEGUI

MASAIK TERAPEUTIKOA ETA DEPORTIBOIA

Errosario kalea 34, 1 eskuina

**ORDUTEGIA:**

- goizez: 10 - 13
- arratsaldez: 4,30 - 7

*Aurrez deituz gero, hobe!*

Tel: 74 18 51

ELGOIBAR

## ibai- ondo

Giza eskubideen Plaza  
Tel: 74 26 27



## MOTZAK

### Joseba Etxeberriaren omenezko peña

Elgoibarko Athletic Club taldeko zaletuak Joseba Etxeberriaren omenezko peña eratzen ari dira. Kide izan nahi duten guztiek izena eman dezakete *Kaia* kafetegian abenduaren 15era arte beranduenez. Athletic-zale guztiak izena ematera animatu nahi dituzte bultzatzaileek.

### Urrea eta zilarra Mora eta Garaterentzat

Ibai gimnasioko Egoitz Morak eta Gorka Garatek Eibarko Kalamua Taldeak osatutako selekzioaren izenean parte hartu zuten joan den larunbatean burututako Errioxa, Valentzia, Cantabria, Madril, Eibarko eta Frantziako bi selekzioen arteko txapelketan. Egoitz Moraren taldeak urrezko domina lortu zuen eta Garateren taldeak, berriz, zilarrezkoa. Larunbatean, hilak 25, Azpeitin izango dira Ibai gimnasioko judokak klubaren arteko txapelketan parte hartzeko.

### Pilota txapelketa

San Migel auzoan antolatzen duten Murkaikupe Binakako III. Pilota Txapelketaren azken partiduak datorren hilaren 17an jokatu dira eguerdiko 12etan. Txapelketa azaroaren 2an hasi zen eta guztira hamasei bikotek hartu du parte.



Gorka Sastre:

### "Elgoibarko ekipuan kalidade haundixa dao"

■ **Nolatan UPV taldean?** - Gasteizen nago IVEF ikasten. Saskibaloiko irakaslia UPV taldeko entrenadorea ere bada. Berak esan zian ia jokatu nahi naban... eta horrela. Hasieran ezetz esan nion ze Gasteizen gelditxu bihar nintzan baina azkenian...

■ **Zein mailatan zaudete?** - Unibertsitate mailako ligan jokatzeko degu, kategoria bakarra da, Estatuko beste Campus batzuen kontra. Saikatzen bagera Sevillara jungo gera Espainiako kanpeonatu jokatzera.

■ **Saikatzeo aukerarik bai?** - Azken partidurarte sailkapeneko buru ginan baina azken partidua geldu ein gendun. Maila altua dauka taldiak, jende oso ona da. Taldeko basea lehengo urtian Taugreseko hirugarren basea zan.

■ **Nola ikusten duzu zeure burua taldean?** - Ni taldeko nobatua naiz, oindik gutxi jokatu det, partiduko sei minutu edo. Baina asko ikasten da ze jende oso ona dao.

■ **Lehenago jokatu izan duzu beste talderen batean?** - Ez, lagunekin betidanik. Iaz Grefusitos taldea osatu eta Eibarren txapelketa bat irabazi gendun baina UPV izan da lehenengo taldea.

■ **Jokalari profesional izaterik?** - Oso zaila da. Altura haundixa bihar da



edo bestela pisua eukitzia. Basiak txikitxuauak izaten dia baina pibota izatia adibidez ezinezkoa izango litzake.

■ **Zuk zein tokitan jokatzeko duzu?** - Aleruan postuan. Kanastaraino sartu, bota, errebotera jun eta korrika ein.

■ **Talde batean jokatzeko, non?** - Bigarren mailako ekipotan. Ia Elgoibarko taldea igotzen dan!

■ **IVEF amaitutakoan, profesionali saskibaloian aritzea nahiko zenuke?** - Lana topatu eta afizio modura entrenatzaile lanian aritzia ondo egongo litzake. Hezkuntzan eta saskibaloian batera lan eitia gustauko litzaidake.

■ **Elgoibarko taldearekin zein harreman duzu?** - Lehen jokatu eta entrenatu naban baina UPVrako dei-

txu ziatenian laga ein naban. Oin klasian ematen ditzuten jokaldixak eta gauzak pasatzen diuet. Ekipuak kalitate haundixa dauka eta alturia ere bai. Partiduak jokatzia falta jakue, esperientzia.

• **Adina: 22**  
 • **Altuera: 1,83 cm.**  
 • **Jokalari bat: Michael Jordan**  
 • **Hobbyak: Kirolak orokorrean eta lagunekin urtetzia**

**Salvador Celaya**  
**ITURGINTZA**  
 BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
 BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK  
 Errosario 22. Tel: 74 04 94 ELGOIBAR

**OIERKI** IGOGAILUAK  
 Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua  
 ☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15  
 Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



### Futbola

Mondra 2 - Haundi 1  
 Anaitasuna 3 - Elgoibar 2 (1. erreg.)  
 Elgoibar 2 - Beti Ona 0 (Jubenilak)  
 Elgoibar 3 - Añorga 1 (Kadeteak)  
 Zarautz 5 - Elgoibar 1 (Infantilak)  
 Dunboa 2 - Elgoibar 3 (Neskak)

### Areto Futbola

Elgoibar 5 - Antxeta 3 (1. maila)  
 Cocinas Urarte 3 - Elgoibar 3 (2. maila)

### Saskibaloia

Txankakua S.T 39 - Mundarro S.B.T. 37.

### Eskubaloia

Urnieta 6 - Pagoaga E. 24 (Kad. neskak)  
 Elgoibar 33 - Don Bosco 11 (Kad. mutilak)  
 Elgoibar 31 - Urola 15 (Jubenil mutilak)  
 Txnakakua E. 23 - Tolosa 19 (Seniorrak)

### Futbitoa

P.S.K. 3 - Berrogei Duro 0  
 Karkis 7 - S. Karapola 2  
 King Kong 2 - Aterpe 1  
 Oraiko Disko 6 - Pedruskos 1  
 Luky Luke 7 - S. Pitxote 3

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

#### Larunbata, 25

10,00 Elgoibar - Eibar (Kadeteak)  
 12,00 Elgoibar - Almen (Neskak)  
 13,15 Gazteak - Aloñamendi (2. erreg.)  
 17,00 Haundi - Getxo  
**Igandea, 26**  
 10,00 Eibartarrak - Bilbo (Neskak)  
 12,00 Elgoibar - Lagun Onak (Infantilak)  
 13,45 Urki A - Ilintxa B  
 15,00 Eibartarrak - Urki B (2. erreg.)  
 17,00 Urki - Beti Sutan (2. erreg.)

### Areto Futbola, Kiroldegian

#### Ostirala 24

22,30 Elgoibar - Egoki (1. maila)

### Eskubaloia, Kiroldegian

#### Larunbata, 25

16,00 Pagoaga E. - Legazpi (Kad. neskak)  
 17,30 Txankakua E. - Aierru (Seniorrak)

### Futbitoa, Urasandin

**Igandea, 26** (Arbitraia : S Karapola)  
 10,00 Sanroketarra - Roke  
 11,00 S. Braga - Udaberri  
 Aldavas - Orbela  
 12,00 Rebel Urbi - Ametsa  
 Ikus Optika - Kosakos

## Abenduaren 3ra arte luzatuko da Nazioarteko Xake Txapelketa

**E**lgoibarko Nazioarteko V. Xake Txapelketaren aurkezpenean M. A. Muela Federazioko presidenteak txapelketaren maila handia azpimarratu zuen. Besteak beste, "Daniel Campora, Ubilaba, Felix Izeta eta Euskadiko txapelduna den Jesus Iruzubietaren partaidetzak maila handia ematen dio txapelketari". Elgoibarko "nazioarteko txapelketa magistralen mailakoa da" eta 10eko kategoria dauka iaztik. "Heldutasunean dagoen txapelketa da" esan zuen Muelak, "horregatik nazioarteko maisu titulua atera nahi duteneztat leku aproposa izan ohi da Elgoibar". Txapelketak 3 milioiko aurrekontua dauka eta saritan 1.000.000 pta. banatuko dira. Partidak larunbatetik, hilak 25, abenduaren 3ra bitartean jokatu dira egunero, arratsaldeko 4etatik aurrera, Kultur Etxean.



### aurtengo jokalaririk

#### JOKALARIK.....PUNUAZIOA

Daniel Campora (Arjentina).....2550 Elo  
 Anthony Kosten (Ingalaterra)...2540 Elo  
 Elizbar Ubilaba (Georgia) .....2525 Elo  
 Normunds Mienzis (Letonia) ...2505 Elo  
 Jesus De la Villa (Espainia).....2500 Elo  
 Felix Izeta (Euskadi) .....2495 Elo  
 Nikola Mitkov (Macedonia).....2470 Elo  
 Mario Gómez (Euskadi) .....2425 Elo  
 Jesus Iruzubiet (Euskadi).....2385 Elo  
 Marcelino Sion (Espainia) .....2375 Elo



**Mintxeta Atletismo Taldekoek** Federazioak antolatutako 60m., 150m., 300m., luzera jauzia, altuera, pisu jaurtiketa eta jauzi hirukoitzean parte hartu zuten iragan larunbatean. Mintxetako pistetan burutu ziren froga ezberdinetan Elgoibar, Eibar eta Azpeitiko 100tik gora neska-mutilek parte hartu zuten. Hurrengo lasterketak datorren abenduaren 2an, 9an eta 16an izango dituzte Mintxeta Atletismo Taldekoek.



# Santa Zezilia eguna, euriz eta musikaz blai

**A**steazken euritsua izan zen Santa Zezilia eguna. Hala ere, euriak ez zuen musikarako gogoia uxatu. Bezperan, asteartean, Inazio Bereziartua musikesholako ikasleek kontzertua eskaini zuten Herriko Antzokian. 500 ikasle inguru dituen eskola honetako hainbat musikari gaztek ondo ikasitako piezak jo zituzten Herriko Antzokian. Pieza klasiko eta ez hain klasikoak, gustu handiz omendu zuten Santa Zeziliaren figura. Asteazken goizean, Ikastolako haurrek Plaza Handitik Ikastolarainoko kalejira burutu zuten kantu eta bertsoen artean. Arratsaldean, organo hitzaldia eta kontzertua izan zen San Bartolome elizan eta Itxaropena abesbatzak Plaza handiko arkupeetan abestu zuten.



## Ongarriren argazkiak Donostian ikusgai

Ongarri Argazki Taldea osatzen duten kideen argazki bilduma bat, 40 erretratuz osatua, Donostiako Argazki Elkarteak antolatutako erakusketan ikusgai egongo dira munduko beste argazkilari ezagun batzuen lanekin batera. Elgoibartarren artean Ramon Ortegaren gorputz biluzien argazkiak, Esmeralda Zapparoliren argazki urbanoak izango dira. Elgoibartarren argazkiak Ouka Lele, Jordi Guillumet, Robert Doisneau, Toni Catany eta beste hainbat argazkilari ezagunen lanen artean egongo dira ikusgai. Bitxikeria modura, Che Guevararen argazki orijinala, Alberto Díaz kubarrak ateratakoa, ikusi ahal izango da. Erakusketa abenduaren 7ra arte egongo da irekita.

## Santa Zezilia ospatuko du igandean Bandak

Udal Musika Bandak Santa Zezilia ospatuko du igandean, hilak 26. Goizeko hamarrak laurden gutxitan kalejiran zeharkatuko dituzte herriko kaleak. Segidan eliz ospakizuna izango dute Santa Klarako komentuan eta 12,30etan kontzertu berezia eskainiko dute Herriko Antzokian. Bost pieza joko dituzte, denak estrainekoz, Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean: "La Alhambra", "Suite Alicantina", "Concierto en Do menor para oboe", "Lawrence de Arabia" eta "Indiana Jones Selection". Eguna bukatzeko lagun arteko bazkaria izango dute Karakate elkartearen.

## Lehiaketak

Mendaroko Udalak **1. IPUIN LEHIAKETA** antolatu du. Deba Beheko ikastetxe ertainetakoek har dezakete parte. Lanek euskaraz eta luzeran 3 eta 6 orri bitartekoak behar dute izan. Irabazleak 35.000 pta eta oroigarria jasoko ditu eta bigarrenak 20.000 pta.. Epea: abandua 22. Sari banaketa 1996ko urtarrilaren 7an egingo da.

EHUk eta Bilboko Udalak **1. BILBO HIRIA SARIA**-Alberto Magno izeneko lehiaketa antolatu dute. Bertan, zientzia fikzio jeneroko eleberri eta ipuin orijinalak aurkeztu ahal izango dira, euskaraz edo gazteleraz idatziak. Bi sari izango dira. Eleberri gutxienez 150 orri izan behar dute eta ipuinek 30 eta 50 orri bitartekoak. Eleberri onenaren egileak 1.500.000 pta. jasoko ditu eta ipuin onenarenak 400.000 pta. Epea: 1996ko urriak 1.



**Txomin Artolak** kantaldia eskaini zien joan den ostegunean Elgoibarko Institutuko ikasleei. Ordubatean hasita, ordubiak bitartean bere abestirik ezagunenetakoak kantatu zituen, bakoitzari sarrera txiki bat eginez Euskal Herriko hainbat istorio eta ohitura kontatu eta gero. Lanbide Eskolako aretoa jendez gainezka zegoen. Diputazioak antolatzen duen programaren barruan, Institutuan Anje Duhalde ere izan zen orain aste batzuk.



# MORKAIKO Mendizale Elkartea

## FEDERATUENTZAKO OHARRA

Morkaiko Mendizale Elkartek zera jakinarazi nahi dizue:

- 1996. urteari dagokion kuota, 95eko azaroan kobratuko dela.
- Kuota eskura ordaintzen duzuenok Elkartetik pasatu federatu lizentzia eskuratzeko.
- Banketxeak zuen ordain-agiriak bueltatzen baditu, ez zaizuela lizentzia berrituko Elkartearen egoitzatik pasa arte.

Kuoten kobraketa aurreratzearen arrazoiak:

- Federatu karneten itxura berria.
- 1996an ez da urtarrileko prorroga famatua izango.

Estrainez federatu nahi dutenek eta federatu lizentzian aldaketaren bat egin nahi dutenek Elkartearen egoitzatik pasa behar dute azaroaren bukaera baino lehen.



## Salerosketak

ORDENAGAILU BAT saltzen dut: IBM AT 286 (1024 Kyteper UGA pantaila, 44 M.B.eko disko gogorra, 3 1/2 eta 5 1/4 eko disketeak, 101 tekladun teklatura 3-31 DOS.  
☎ 74 19 21 Maite

PISTAKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean. Berria.  
☎ 74 01 84

Komedorerako aulki batzuk saltzen ditut. Egoera oso onean daude.  
☎ 74 37 22 (goizez 8-10)

3 urteko ASTOA eta pare bat urteko BEHI ESNE DUNA erosiko genituzke.  
☎ 74 37 68 Antonio (Aranbeltz baserria)

1,05 oherako BI EDREDOI SALTZEN DITUT modu onean.  
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA txiki bat saldu nahi dut. Orbea markakoa.  
☎ 74 34 06

GAC ZIKLOMOTORE BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza da eta aseguru dauka 96ko maiatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23  
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT saltzen dut. Estrenatu gabe. 23.000 pta.  
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800 inyección SS-AJ 76.000 km. salgai.  
☎ 19 19 54

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.  
☎ 74 09 23

## Etxebizitzak

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.  
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.  
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.  
☎ 74 34 05 / 74 34 06  
M. Carmen edo Aurora

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.  
☎ 74 16 30 Maria Oliva  
Goizez 9,30-13,30

ETXEBIZITZA BAT ALOKATU NAHI DUT Elgoibarren. Altzariak badauzka hobe.  
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.  
☎ 42 51 49

## Lana

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 74 29 56 Gema

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.  
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

C1 KARNETA dut eta banaketa lanak, egiteko, anbulantziak, taxiak, 16 tn.tako kamioiak gidatzeko prest nago.  
☎ 74 14 96 Izaskun

Neska bat KANGURO LANAK egiteko prest dago.  
☎ 74 24 53 Yoli

## Garajeak

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Arregitorren.  
☎ 74 22 11 Ana Mari  
Deitu: 12,00-14,00 eta 20,00-22,00

ALOKATZEKO GARAJE BAT daukat Santa Ana 2an.  
☎ 74 07 05

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Arregitorren. 38,19 m<sup>2</sup>  
☎ 74 30 81  
Gaueko 9,30etatik aurrera

## Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.  
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.  
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

OHoko KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.  
☎ 68 20 42 / 67 06 49

ADMINISTRARITZA eta EGBko partikularrak ematen ditut. Astearte, asteazken eta ostirala 3,00-8,00  
☎ 74 40 86 Maite

## Agurrak

Hilaren 23an 11 urte bete zituen Ana Palominori Zorionak ikastolako 6. mailako guztien partetik.

## Bestelakoak

Karitasek LABADORA bat eta SALARAKO MAHAIA eta AULKIAK behar ditu.  
☎ 74 15 09 - 74 12 57

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning-a .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitalea756264  
Drogomenpekotasun Z. 741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....102131  
Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...741008  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri Eskola .....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 27 59  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....10 84 21  
Zazpiki .....74 34 74

## 24 OSTIRALA

### 20,00 ORGANO KONTZERTUA

Organojoleak: Jose Luis Franzesena eta Myriam Ulanga  
✓ San Bartolome parrokian  
Antolatzailea: Parrokia, Eliz Abesbatza eta Musika Fundazioa.

### 22,15 ZINEA

"Un paseo por las nubes"

## 25 LARUNBATA

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

### 19,30 PARROKI ABESBATZAREN SAIOA

(Meza barruan)  
✓ San Bartolome Parrokian

### 19,30-22,15 ZINEA

"Un paseo por las nubes"

## 26 IGANDEA

### 09,45 BANDAREN KALEJIRA

### 12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

### 16,30 ZINEA

"Power Rangers"

### 19,30-22,15 ZINEA

"Un paseo por las nubes"

## 27 ASTELEHENA

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

### 22,15 ZINEA

"Un paseo por las nubes"

## 28 ASTEARTEA

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

### 22,00 ZINEA

"La última seducción"  
(Ikuslearen eguna)

## 29 ASTEAZKENA

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

## 30 OSTEGUNA

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

### 19,00 HITZALDIA

Gaia: Seme-alaben heziketa  
Hizlaria: A. Medrano psikopedagogo  
✓ Mekanikan  
Antolatzailea: Guraso Eskola

## 1 OSTIRALA

### 16,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

✓ Kultur Etxean

### 22,15 HELDUENTZAKO TXOTXONGILOAK

Taldea: Bulgariako Teatro Trece  
Lana: "Folklore Mágico"  
✓ Herriko Antzokian

# txandak

## FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
25, larunbata:	Ormazabal	Zabaleta
26, igandea:	Ormazabal	Zabaleta
27, astelehena:	Ettxeberria	Anduaga
28, asteartea:	Ettxeberria	Anduaga
29, asteazkena:	Ettxeberria	Anduaga
30, osteguna:	Ettxeberria	Anduaga
1, ostirala:	Ettxeberria	Anduaga

## FARMAZIEN HELBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Soraluze

Te. 75 13 84 I

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro

Tel. 75 61 42/75 60 27

## OKINDEGIA:

26, igandea: FOTERO



## Un paseo por las nubes

Zuzendaria: Alfonso Arau  
Antzezleak: Keanu Reeves, Aitana Sanchez-Gijón, Anthony Quinn.

Paul Sutton, (Keanu Reeves) gerratik etorri berria da. Gerraren esperientziak traumatizatu egin du. Etxera bueltan dena aldatua ikusten du. Mahastietan galdutako balore tradizionalak topatuko ditu. Victoria Aragón (Aitana Sanchez-Gijón) ezagutuko du eta bien artean maitasun harreman sutsua sortuko da.

## La última seducción

Zuzendaria: John Dahl  
Antzezleak: Linda Fiorentino, Peter Berg, J.T. Walsh.

Bridget, herri txiki batean bizi den emakume "fatal" horietako bat da. Dena lortu nahi du, berehala. Medikamentuen trafikoari esker senarrak lortutako milioi bat dolar hartzen ditu. Senarrak detektibe pribatu bat kontratatzen du emaztea eta milioia topatzeko. Herritik irten nahian, bertako mutil batez baliatuko da ihes egiteko.



# INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

Gabonetako oparietan  
pentsatzen hasteko  
garaia da. Etxerako  
nahiz brikolaiarako  
tresneria daukagu.

Zatoz eta ikusi zer  
daukagun!

PODATZEKO GURATZEAK 8

KABLE BILTZAILEA 25 METRO 6.140

ERROBERA NEUMATIKODUN KARRETLA

AIZKORA

BARATZERAKO ESKULARRUAK 5

2 METROKO FRENODUN FLEXOMETROA

5 METROKO FRENODUN FLEXOMETROA

SILIKONA APLIKATZAILEA 46

KABLEDUN LANPARA 1

BAINURAKO BASKULA

**2.100**




SUKALDERAKO PISUA (2kg)

**2.750**



BATIDORA

**4.095**



LIKUADOREA

**5.700**




ILE LEHORGAILUA

**4.880**



LURRUNEZKO PLANTXA

**4.800**



KAFETERA ELEKTRIKOA

**4.125**



URDAIAZPIKOA MOZTEKO EGURRA

**3.495**



# IRU-NABE ESKABAZIOAK



SAN PEDRO AUZOA  
☎ 943-74 17 28  
ELGOIBAR